

La Tabladako presoak



La Tabladako sarraskian militar eta poliziak ere zauritu ziren.



en aurkako epaiketa etorri zen: «Epaiketa fartsa bat izan zen: lekukoak asmatu zituzten, fiskalek militarren menpe jokatu zuten...» adierazi digu Aznarezek. Epaiketa amaitzean, abokatu eta familiarrek apelatu egin zuten, eta lortu zuten 1997an OEAKo Giza Eskubideen Amerketako Batzordeak (CICH) La Tabladako aldeko ebazpena egin zezan. Ebazpen hark zera zioen: ez zutela epaiketa justu bat izan, apelatzeko eskubidea ukatu zitzaizela epaiketa horretan, eta erailketen, desagarkeren eta torturen argitzea eskatzen zuen halaber. Iazko urte amaieran izandako gose-grebara arte ez zen inolako erantzun egiazkorik izan, erantzun epel-txikiak izan ziren Gobernuaren partetik, bai Menem presidente zenean eta baita De la Rúa zegoenengan ere. Aznarezen ustetan horrek zera esan nahi du: «Militarrek ikaragarritzko boterea dutela oraindik Argentinan. Eta gai hau militarrentzat estatu-arrazoi moduko zerbait da. Beraiek egin zuten sarraskia eta ez dute nahi gai hura azter dadin».

NENINA BOULLIET

«Zerbait lortu dugun arren, guk epaiketaren berrikuspena eskatzen jarraituko dugu»


Azken gose grebaren ostean askatasun bidean aurrerapausorik eman den arren, Argentinako Elkartasun Batzordeak aurrera begira lanean jarraituko duela adierazi digu Nenina Boullietek: «Zerbait lortu dugun arren, guk eta giza-eskubideen aldeko gainontzeko erakundeek epaiketa berrikuspena eskatzen jarraituko dugu. Txosten bat kaleratu dugu, CICHek ateratako ebazpena ez dela bete esanez. CICHek dio presoek ez zutela aukerarik izan apelazio juridikorako. Eta horretarako parada izan behar dutela. Gainera eskatzen zuten azter dadin zein izan zen errepresio, desagerketa eta tortura haien egilea eta halakorik ez da gertatu. Beraz, guzti hori egiteko dago eta heldu den martrxoan CICH-a bilduko da Gorriararen kasua salatzeke. Gorriaran ere epaiketa egin aurretik apaitu zuten eta».

ENRIQUE GORRIARAN MERLO



Gerrillari historikoa

«Pertsona idealista, bere interesen gainetik Herrien Askapena lortzeko borrokarako konpromisoa duena». Hala definitu zuen Enrique Gorriaran Merlo, Nikaraguako lehendakari izan zen Daniel Ortegak 1997an. Ortegak, Somozaen diktaduraren aurkako borrokan ezagutu zuen Gorriaran. Euskal jatorriko argentinarrak honek (osabak ditu euskal herritarrak) Latinoamerikako askapen mugimendu zenbaitetan parte hartu baitzuen. 70. Hamarkadan Argentinan bi mugimendu iraultzaile nagusi izan ziren. Bat montoneroek osatu zuten, eta bestea Ejercito Revolucionario del Pueblokoek (Herriaren Ejertzito Iraultzaileak). Gorriaran bigarren horretako buruzagietako bat izan zen. Ondoren Nikaraguara joan eta han Fronte Sandinistan aritu zen. Sandinismoak goia jo zuen garaian mugimendu horretako kide entzutetsuenetako bat izan zen. Halaber, Gorriaran izan zen Anastasio Somoza diktadore eta genozida nikaraguarra hil zutenetako bat. Atentatua beste adiskide batekin egin zuen, eta ekintza horretan bere laguna eta Somoza zendu ziren. Gorriaran iheslari moduan gelditu zen eta hala ibili zen Latinoamerika osoan zehar 1989an La Tabladako (Argentina) Kuartel Militarreko sarraskia gertatu zen arte. Bera MTP Movimiento Todo por la Patria (Aberriaren Aldeko Mugimendua) taldeko burua zen, eta talde horretako 26 kide hil ziren urte horretako urtarileko egun batez. Bera izan zen sarraskiari horretatik alde egin ahal izan zuenetako bat, eta iheslari bezala geratu zen berriro ere, harik eta 1995ean Mexikon bahitu zuten arte, Argentinako eta Mexikoko Poliziek elkarren artean egindako operazio batean. Argentinara ekarri zuten Menem lehendakari zela, eta ordudunik preso da. Bere emazte Ana Maria Sivorirekin batera bihurtzeko espetxe zigorra duen La Tabladako preso bakarra da.



Carlos Motto preso gose greban zela.

ondoren Argentinako Armadako 3.000 soldaduk hartu zuten lekukoak». Carlos Aznarez idazle, kazetari eta nazioarteko gaitan aditua denak ere «berezitza» ditu La Tabladako gertakizun haiek: «Alfonsinen Gobernu Demokratikoa zegoen indarrean. Militarrek entzerrona moduko hura egin zuten eta kuartela hartzera joan zirenak sarraskitu zituzten. Orduak eta orduak igaro zituzten militarrek tiro egiten, eta lekua bonbardatzen. Militarrek Alfonsin erabili zuten egoera hura bermatzeko. Alfonsin ekintzaren kokagunera bertaratu zen, baina ez zuen eragotzi gertatzen ari zena eta militarren menpe amaitu zuen guztiz».

Guzti horren ondoren MTPko kide-